

Jordi Fornas

Katalantasunaren grafista

Jordi Fornas (Bartzelona, 1927–2011) pintore eta diseinatzailearen lana, batez ere liburu eta diskoen azalen diseinua, ezinbestekoa izan zen 1960ko hamarkadako kultur identitate katalana eraikitzeko. Sasoiko kultura katalana modernizatzea eta Frankismoarekin erabateko haustura xede zituen mugimenduan funtsezko elementua izan zen. “Une historiko bateko parte izan zen, eta, diseinu grafikotik abiatuta, identitate berri bat eraiki zuen –Raimonek zioenez–, garai batekoa eta herrialde batekoa”, azaldu du Pau Llop diseinatzaile grafikoak. Lleidako Institut d’Estudis Ilerdencs kultur erakundeak ikusgai jarritako *Fornas. La imatge de Catalunya dels 60* (Fornas. 1960ko urteetako Kataluniaren irudia) erakusketaren komisarioa izan da Llop, eta Fornasen lana hizpide, berarekin mintzatu gara.

JULEN AZPITARTE

60 ko hamarkadan Katalunian ekoiztako diskoen zalea da Llop, eta grabazio horien azalen bidetik, gehienak Edigsa diskoetxeak plazaratuak, iritsi zen Fornasen obrara. “Bere lana deskubritzeko prozesua izugarria izan zen, irekitzen zitzaidan ate bakoitza produkzio grafiko oso zabal bateko pieza bat gehiago zen, betiere Kataluniako une historiko, politiko, sozial eta kultural bati lotua: Edicions 62 argitaletxerako diseinuak (katalanezko literaturaren zabalkundearen erreferentea), Edigsa diskoetxeako azalak, *Serra d’Or* i *Presencia* aldizkaria, eta, azkenik, *Gran Enciclopèdia Catalana*”.

Fornasek garaiko kultur proiektu nagusienetan parte hartu zuen, bai eta katalanaren erabilera sustatzeko kanpainetan ere, azken horiek 70eko hamarkadan. Hala, zenbait historialariren aburuz, liburu, aldizkari eta disko horietan garatutako lan grafikoaren ondorioz, Fornas katalantasunaren grafista bihurtu zen. Ikonografian pop-a eta tipografian arrazionalismoa uz-

tartzea izan zen artistaren Identitate-markaren formula.

Llopen iritziz, Fornasen lanik ezagunena nobela beltzaren *La Cua de Palla* bilduma da: “Manuel de Pedrolok koordinatzen zuen bilduma hori, eta bere arrakastaren oinarria aukeraketa editorialaren eta diseinu ikusgarriaren arteko tandemean dago. Fornasek bi kolore baino ez zituen erabili (beltza eta horia), sans tipografia bat eta kontraste handiko argazkiak (erreak). Horrela definitu zuen mugak gaudituko zituen bilduma editorial baten estilo grafiko eta komunikatiboa”.

Bere estiloan askotariko eraginak biltzen dira, tartean anglosaxoiak, frantsesak, suitzarrak eta katalanak. Fornas Bartzelonan trebatu izanagatik ere, Parisera eta Europako beste hiriburu batzuetara bidaiatu zuen bere obra erakusteko asmoz. “*La Cua de palla* nobela beltzaren bildumarako egindako azaletan, adibidez, hemengo aldizkarien irudiak erabili zituen; hau da, istorioa New Yorken gertatzen den bitartean, diseinuak Suitzako eragina du eta erreferentzia katalana da, batuketa unibertuala da”, dio Llopek.

BERDEA, LARANJAREN GAINETIK

Diseinatzaile katalanaren lanik esanguratsuen, bere obrarik handiena, berdez jantzitako *Gran Enciclopèdia Catalana* da, zeina hainbat familien egongeletako apalategietan kokatzen zen alfabetikoki ordenatua. 1968. urtean jaso zuen entziklopedia diseinatzeko eta maketatze enkargua. Entziklopedia asmo handiko ekimen kulturala izan zen, intelektual belaunaldi batek abiatutako sasoiko kultura-, gizarte- eta ekonomia-egoerari buruzko erreferentziazko obra bilakatu baitzen. Diseinatzaile katalanak bere obra grafikoaren alderik zorrotzera erakutsi zuen. “Egin zuen proiektu teknikoena eta konplexuena izan zen. Ez da alderdi grafiko nabarmentzen, baina aldiz, bai nabarmentzen da hierarkien aplikazioa eta maketazioa”, esan du Llopek.

Haatik, lan horrekin hamaika tirabira bizi izan zituen Fornasek: liburuaren bizkarrak laranja behar zuen, horrela irudikatu baitzuen diseinatzaileak, baina argitaletxeak deigarriena zela deliberatu zuen, eta berdez margotu zuen. “Aldatu egin zuten, Kataluniako etxeetako egongeletan hainbeste nabarmendu ez zedin”. Inposatutako aldaketa hori omentzeko, Fornasen atzera begirako erakusketaren antolatzaileek laranja bete dute erakusketak eta katalogoa.

DISEINATZAILEA BAINO, PINTOREA

Fornasen ausardia grafikoak sekulako onarpena izan zuen Kataluniako gizartean, baina ez horrenbeste gremioko ki-deen artean, gehienbat bere burua pintoretzat zeukalako. “Fornas ez da inoiz izen garrantzitsua izan Kataluniako diseinua munduan, hein batean bere burua pintoretzat zuelako. Ordea, Kataluniako etxe askotako liburutegi eta diskoteketan erraz antzematen da Fornasen diseinuren presentzia: omenaldirik onena da pop kulturaren sortzaile batentzat”, nabarmendu du Llopek.

Diseinua, hain justu, lanbidetzat zuen Fornasek. Alegia, familia elikatzeke diru-iturria zen –lau seme-alaba izan zituen–,



FORNAS FAMILIAREN ARTXIBOKO ARGAZKIA.

bere benetako aspirazioa eta bokazioa pintura baitzen. Hala, 1975etik aurrera, diseinuaren sektorean jada aitortza jaso zuenean, etxean sartu zen, eta etxeratze bari tarteko, bere obra piktorikoak nabarmen egin zuen gora; lan grafikoak ostera, behera egin zuen.

“Nire ustez, garrantzitsua da diseinua eta artea bereiztea. Bi diziplinek espazioak eta baliabideak partekatzen dituzte, baina bakoitzak aplikazio ezberdin bat dauka: diseinuak behar “komertzial” bati erantzuten dio, eta arteak, berriz, artistaren sorkuntza-beharrari. Fornasek argi

eta garbi bereizten zuen bata eta bestea, baina argi dago haren prestakuntzak eta espiritu artistikoak eragina izan zuela bere diseinatzeko moduan: askatasuna konposizio tipografikoetan, kolore-sorta iradokitzailea eta modernoa...”, argitu du Llopek. Horiek horrela, Fornasek ez zuen begi onez ikusiko Lleidan ikusgai izan den atzera begirakoa. Behintzat, horrela jakinarazi zion artistaren familiak komisarioari.

Fornas. La imatge de Catalunya dels 60 erakusketak irailaren 5ean itxi zituen ateak, eta orain, beste leku batzuetara

eramateko asmoa dute: “Valentzia, Mallorca, Perpinyà, Montserrat... edo Euskal Herria”. Askotariko bisitariak igaro dira erakusketatik, tartean diseinu ikasleak, bildumagileak eta arte kritikariak, “baina bereziki une historiko hori bizi izan zuten pertsonak”. Llop bera bildumagilea den aldetik, Fornasen zein obra nabarmenduko lukeen galdetu diogu, amaitzeko: “Seguruenik Núria Feliuren diskoa aukeratuko nuke, *Gent (People)* kantuaren egokitzapena jasotzen duena. Fornasekin eta diseinatu zituen diskoekin dudana lotura irudikatzen du”. ●

Ogiaren egia

Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

gariOn
naturAria

AZAROAK 19, OSTIRALA

KONTZERTUA
19:00etan

MAITE ARRIOTAJAUREGI
"MURSEGO",
AINARA LEGARDON
IPOIA HERNANDEZ "HATXE!"

EMAKUME SORTZAILEAK PLAZARA!!

Laio
LABORAL
Sarrerak mezuz eskatu Telf: 627119096